



hartzeari buruzko azterketarik egiten. Emakumeen presentzia handiagoa izateak ez du bermatzen erabakiak modu parekidean eta genero-ikuspegiarekin hartzea. IZE-Euskadi Elkarteak bere txostenean adierazi du zuzendaritza-batzordea ezin izan dela berritu eta emakumeak sartu, boluntariorik ez zegoelako; erabakiak hartzeko guneetan sartzeko emakumeek dituzten zailtasunen adierazgarri da hori, besteak beste, genero sozializazio-arauek eta genero-baldintzatzaileek duten eragina dela eta. Horrek zerikusia du emakumeei eta gizonei esleitzen zaizkien gizarte-arauak edo balioak gainditzeari edo aldatzeari buruzko txosteneko atalarekin, zeina ez egokitzen jo den: alderdi hori beti da garrantzitsua parte-hartzeari dagokionez.

Nolanahi ere, Elkarteak bere txostenean aipatzen du lantaldea parekidea dela. Halaber, Elkargoaren estatutuen zirriborroan jasotzen da Gobernu Batzordeko genero-parekotasunaren irizpideekiko konpromisoa: bi gai horiek positiboki baloratzen ditugu, nahiz eta egokiagotzat joko genuke etorkizuneko estatutuetan genero-ikuspegia eta emakumeen eta gizonen berdintasuna Elkargoaren jardura guztiak barne hartuko dituen printzipio gisa sartzeko konpromisoa ere jaso izan balitz. Horri esker, erabakiak hartzean berdintasunerantz aurrera egiteaz gain, etorkizunean antolatuko diren jarduerak (azterlanak, ikerketak, prestakuntzak, pertsonen eskubideen babesa, etab.) ikuspegi hori kontuan har dezaten sustatuko litzateke.

Azkenik, arau-proiektuaren testuan hizkera ez-sexista erabiltzeari buruz egin dugun balorazio positiboa berretsi nahi dugu.

hombres en la toma de decisiones de la asociación. La mayor presencia de mujeres no garantiza una toma de decisiones paritaria y con enfoque de género. La Asociación IZE-Euskadi indica en su informe que la junta directiva no se ha podido renovar e incluir mujeres por falta de personas voluntarias; esto es algo indicativo de las dificultades de las mujeres para acceder a los espacios de toma de decisiones debido, entre otras cuestiones, a las normas de socialización y los condicionantes de género. Esto tiene que ver con el apartado del informe sobre la superación o modificación de las normas sociales o valores de lo que se atribuye a mujeres y hombres, que se ha indicado como no procedente: es un aspecto que es siempre relevante en lo que tiene que ver con la participación.

En todo caso, la Asociación ha recogido en su informe que el grupo de trabajo es paritario. Asimismo, en el borrador de estatutos del Colegio recoge el compromiso con los criterios de paridad de género en la Junta de Gobierno: valoramos ambas cuestiones positivamente, aunque hubiera sido deseable que se recogiera también un compromiso por incluir en los futuros estatutos el enfoque de género y la igualdad de mujeres y hombres como un principio que permee todas las actividades del Colegio. Esto permitiría no solo avanzar hacia la igualdad en la toma de decisiones, sino también promover que las actividades que se organicen en el futuro (de estudio, investigación, formación, protección de los derechos de las personas, etc.) tengan en cuenta dicho enfoque.

Por último, reiterar nuestra valoración positiva del uso no sexista del lenguaje realizado en el texto del proyecto de norma.